



REMEMBERING REMINDING

Alzheimerra duten gaixoei laguntzeko, musikoterapian oinarritutako Android aplikazioa.

Egilea: Mikel Armendariz Alberdi

Zer eskaintzen du?

Aplikazioak musikoterapian oinarritutako hainbat ariketa eskaintzen ditu. Gainera, ariketa hauek taldean denbora errealean gauzatu ahalko dira. Horrez gain, gaixoei jarraipen bat emateko, ariketetan lortzen dituzten emaitzak jaso eta estatistikak ateratzen dira.

Nondik dator ideia?

Gipuzkoako foru aldundiak finantziatu duen Remembering Reminding proiektuarena da ideia originala. Proiektu horren helburua musikoterapian oinarritutako ariketak garatzea da, eta horretarako automatikoki melodia eratorriak sortzeko algoritmoa sortu da. Hain zuzen, Android aplikazio honetan algoritmo hori erabili da ariketetarako melodiak sortzeko.

Melodiak:

Ariketetan melodia originalen bertsioak erabiliko dira, eta hauek algoritmo baten bitartez sortzen direnez, melodien errepikapena gutxituko da, ariketa baten gauzatzea esperientzia bakar bilakatuz.

Taldeko ariketak:

Taldeko ariketak denbora errealean gauzatuko dira, hau da, mugikorrek sinkronizatuko dira taldeko gaixo guztiek ariketa momentu berean egin dezaten. Horrez gain, zaintzailea izango da ariketa guztia prestatzeko arduraduna, beraz gaixoei ariketa gauzatu besterik ez dute egin behar.

Zuzendariak: Ekaitz Jauregi eta Iñigo Perona.